

SUAREZ, Castillo. *Spam poemak*.

Elkar argitaletxea. Donostia, 2004. 101 orrialde

Ainhoa AROZENA

"Esaten dute, benetako idazle izateko, eleberria idatzi behar dela baina, idazle izaten ez banaiz ere, berdin zait. Poesiarekin eroso nago", Castillo Suarez Altsasuko idazle gaztearen hitzak dira, Beterriko Liburua literatur aldizkariaren 23. zenbakian irakur daitezkeen modura. Apustu baten ondorioz hasi omen zen Castillo Suarez idazten, eta, apustu ona egin zuela esan beharrean gaude, emaitza eder bat baino gehiago eman baitu dagoeneko. Bere azken lanari *Spam poemak* jarri dio izenburu, aurretik ordea, baditu beste hainbat lan argitaratuta. Agian, azken liburu honen aurretik, *Mugarri estaliak* poesia liburua da aipagarriena.

Poesia idazten hasi zen Castillo Suarez eta poesiagintzan jarraitzen du egun ere. Txoriak eta naturako gehiegizko aipamen boro-bilduegiak alde batera utzi, eta mezu sendoagoa eta zorrotzagoa duten poemak idaztea nahiago duela adierazi digu; liburuan bertan ere, ondo baino hobeto sumatzen zaio asmo hori. Gizaki gehienon kezka ditu ardatz azken poesia bildumaren gaiak aukeratzekoan; maitasuna, sexua, gizartea, lurraldetasuna... Zorrotzak dira liburuan batu dituen poemak, bai, irakurri orduko pentsaraztera bultzatzen dutenak. Irakurlea pasarte batekin baino gehiagorekin identifikatuko da seguruenik; era batera edo bestera, guztiok barne-barnean ditugun sentimenduak gertu-gertutik ukitzen baititu, zuzen, zorrotz, gordin; baina, modu zainduan ari da, zorrotzak eta zakarrak ez baitu zertan berdina izan beharrik.

Egitura eta formato ezberdineko poemak bilduz, bost ataletan banatu du liburua. Lehen atala laburra da oso eta bi lerroko aipu

batek ematen dio lanari hasiera; azken atala ere laburra da baina, kasu honetan, poesia luze edo ipuin moduko kontaera batekin amaitzen du. Idazleak berak azaldu duenez, "tarteko poema horien formatoa errazena da, nolabait esan. Askoz ere zailagoa da esaldi labur batean sentsazio bat aditzera ematea, eta zer esanik ez, istorio luze horretan".

Poemak alde batera utzita, liburuak berebiziko indarra duela erakusteko, adibide bat jartzea nahikoa du; Castillo Suarezek, Iban Zaldua idazle gasteiztarrari eskatu zion hitzaurrea egiteko, jakin arren Zaldua, nolabait esan, antipoeta dela. Idazleak argi azaldu zion olerkia ez zuela maite eta lan hori betetzeko, gustatu egin beharko zitzaioela idatzitakoa, gainerakoan, ez zuela hitzaurrean parte hartuko. Liburua, *Engainu elektronikoa*, hamar orrialdeko hitzaurre ederrarekin hasten da. Egilearen izena Iban Zaldua da.

Poesia zoko ilunetatik ateratzen ari dela dirudien garai honetan, aukera polita eskaini digu Castillo Suarezek. Bide berriak zabaltzen ari direla dirudi. Poesiazaleak bezalaxe, aurkakoak diren hainbat irakurle ere ari da aipatu generora zaletzen. Arrazoiaren bat izango da tarteko, ezta?